

Zer da ziberdelitu bat?

Ziberdelitu edo delitu informatiko batean, gertaerek bi osagai dituzte: **delitu baten eginkizuna** eta hau burutzeko **informatikaren erabilera**.

Ziberdelituak ez dira zigor-kodean ziberdelitu bezala jasotzen, ohiko delitutzat baizik. Ziberdelitu **modu asko daude**: mehatxuak, sexu-jazarpena, estortsioa, sekretuen ezagutaraztea, irainak, kalumniak, exhibizionismoa, lapurretak, iruzurrak...

Zerrenda oso luzea da, aurretik esan dugun bezala, (ia) **edozein delitu ziberdelitu batean bilakatu daitezkelako** informatika-tresnen erabilerarekin.




Ziberdelituen zenbait adibide



Ordenagailu baten eta honek dituen datu guztien **bahiketa**, berreskuratzeko erreskatatze bat eskatuz.



Mail baten bidalketa, **banku edo zerbitzuen hornitzaile** bat direlaren **itxurak eginez** (phishing), datu pertsonalak edo online zerbitzu batean sartzeko datuak lortzeko.



Edozein motatako sariak lortzeko eta lapurtutako argazkiak ez publikatzearen truke, heldua zein adingabea den pertsona bati lapurtutako **argazki pertsonalen erabileraren bidezko estortsioa**.

Nola jokatu ziberdelitu baten biktima bazara (edo zarela uste baduzu)



EZ ONARTU

Ez ezazu onartu edozein motatako **xantairik** edo **aurrez aurreko topaketarik**.




EZ EZABATU

Ez ezazu ezabatu **delituarekin erlazionatutako inolako ebidentziarik** (mezuak, irudiak, pantaila-irudiak, sare sozialetako aipamenak).



GORDE

Posible bada egizu **ebidentzia guztien segurtasun kopia** euskarri fisiko batean: pendrive-a, memoria txartela, cd-a.



EZ BIRBIDALI

Ez partekatu edo birbidali ziberdelituarekin erlazionatutako mezurik.

Ziberdelitu batengatik salaketa bat nola jarri



Salaketa bat jartzeko **edozein Ertzaintxetxera** joan behar duzu. Gogora ezazu bildutako **ebidentzia** guztiak zurekin eramatea.



Delitu izan daitekeen gertaeraren bat identifikatzen baduzu, jarri Ertzaintzarekin kontaktuan. Horretarako, idatzi email bat **Informazio Teknologietako Delituen Atal Nagusiari** (di@ertzaintza.eus), daukazu informazioa Ertzaintzaren eskuetan jarri.